

EZKERRA BAI, BAINA NORA?

Erronka handiei egin beharko die aurre Latinoamerikako bigarren «marea gorriak»

Kolonbian eta Brasilen ezker-
rak lortuta-
ko garaipe-
nek 2021ean
Latinoameri-
kan sumatzen zen «marea gor-
ria» –batzuek nahiago «ma-
rea arrosa»– baieztatu dute.

Gustavo Petro gerrillari ohi ezkertiarak nahiko aise iraba-
zi ditu Kolonbiako presidente-
tzarako hauteskundeak agor-
tzear den urtearen erdialdean.

Luiz Inazio Lula da Silva sin-
dikalista eta presidente ohia
bigarren itzulian eta juxtu-
juxtuan gailendu zaio urte bu-
kaeran Jair Bolsonaro ultraes-
kuindar presidenteari. Garaipen horiek iaz ezker-
Txilen, Perun eta Hondurasen
lortu zituenekin bat datoz.

Erdialdeko Amerikako he-
rrialdearen kasuan, esaterako,
Xiomara Castrok, duela 13 urte
estatu-kolpe instituzional ba-
tek boteretik bota zuen Ma-
nuel Zelayaren emazteak, se-
narraren kargua (2006-2009)
eskuratu zuen urte hasieran.

Zelayaren presidentetzaren
bilakaera eredugarria da,
2000ko hamarkadan Latinoa-
merikan bizi izan zen lehen
«marea gorriaren» azken ga-
raipenetakoa ez ezik, bere
amaiera bortitzak 2010eko ha-
markadan gobernu ezkertia-
rren aurka eskuinak bultzatu-
ko zuen kanpaina zikinaren
(estatu-kolpe bigunak, botere
judizialaren erabilera, barne
disidentzien instrumentaliza-
zioa...) aitzindari izan zelako.
Kanpaina horrek Latinoameri-
kako lehen olatu progresistari
amaiera eman zion.

NEOLIBERALISMOAREN PROMESAK

1970. urtean Pinocheten esta-
tu kolpearen haritik Txilen es-
treinatu zen neoliberalismoak

✉ **NORANTZA POLITIKOA** / Dabid Lazkanoiturburu

Bigarren aukera dute Latinoamerikako ezkerreko
gobernuek eskuinaren eta botere ekonomikoen presioen
gainetik politika aurrerakoietan sakontzeko. Erronka
handiak dituzte, ordea. Klase herrikoien ongizatea ahaztu
gabe, estraktibismoari mugak jarri behar dizkiote. Eta
ezkerraren norabidea geopolitikak edo eskubideek
markatuko duten, hautu hori ere egin beharko dute.

eta bere promesa gezurtiek
–inoiz iritsi ez zen moderniza-
zio ekonomikoa eta kanpo zo-
rraren eta inflazio izugarria-
ren desagerpena– agortuta
utzi zuten kontinentea 90eko
hamarkadan.

Izan ere, egoera okerrera
eraman zuten politika horiek,
eta jendearen haserre piztu.
Ezinegon hark lehen «marea
gorria» ekarri zuen, 1999an
Venezuelan Hugo Chavezek
ireki zuena. Haren atzetik iri-
tsi ziren Lula Brasilen (2002),
Nestor Kirchner Argentinan
(2003), Tabare Vazquez Uru-
guain (2005), Evo Morales Bo-
livian (2005) eta Rafael Correa
Ekuadorren (2006).

Ez ziren bakarrak izan, beste
herrialde batzuetan ere, Hon-
durasen kasu, izan zirelako an-
tzerako saiakerak; hori bai, la-
burragoak. Aipatutako
herrialdeetan, ordea, agintari
horiek, edo haien ondoren-
goak, Brasilen Dilma Roussef
kasu, 2015. urtera arte egon zi-
ren boterean.

«BOSTURTEKO BELTZA»

Urte hartan, Mauricio Macri
eskuindarrak hauteskundeak
irabazi zituen Argentinan. Ho-
rren ondotik etorriko ziren ez-
kerraren gainerako porrotak,
batzuk hauteskundeetan, bai-
na betiere elite ekonomikoen
eta eskuinaren trikimailu poli-
tiko edo judizialen ondoren.

Neoliberalismoa indartuz
zihoan, eta Mendebaldeko ez-
kerrarengan izugarrizko espe-
rantza sortu zuen Latinoame-
rikako «marea gorriak» atzera
egin zuen nabarmen eta «bos-
turteko beltza» hasi zen.

Aro zahar-berri horren bul-
tatzailuek gobernu aurrera-
koiek lortutako emaitzak zi-
tuzten jomugan. Izan ere,
aurreko hamarkadan nabar-
men gora egin zuen aipatuta-



ko herrialdeetan barne produktu gordinak (munduaren batez bestekoaren bikoitza), eta berdintasunik eza murriztu egin zen, gutxiengo soldataren igoeraren eta giza laguntzen bitartez. Txiroen proportzioa %45,6tik (2003an) %27,8ra erori zen 2014rako.

JAZARPENA ETA ERUAUAK

Botere ekonomikoak ezin zuen hori jasan eta bereak eta bi egin zuen Brasilen –Roussef kargugabetu eta Lula kartzelatu–, Ekuadorren –Korrea erbestera bidali eta bere ondorengoa, Lenin Moreno, erosi–, eta Bolivian –Moralesen aurkako estatu kolpea– egoerari buelta emateko.

Hala ere, ezin da ukatu ezker-rrak berak ere akatsak egin zituela, bere aurkako jazarpena samurtuz eta azkenean porrota ahalbidetuz. Eta ez bakarrik ustelkeria kasuekin –egon egon zelako eta ezin baitzaio eskuinaren manikeismoari manikeismoarekin erantzun–.

Ekonomia arloan, babes soziala zor publikoarekin bermatu zen –eta ez aberatsenei ezarritako zergen bitartez–, horrek duen atzera egiteko arriskuarekin.

Are gehiago, gobernuek ez zituzten zalantzan jarri benetan desberdintasun sozialaren arrazoi estrukturalak eta %1 aberatsenen ondasunen proportzioak ez zuen ia-ia batere behera egin. Aitzitik, igo egin zen Brasilen kasuan.

Hala ere, akats larriena –baina, egia esan, irtenbide oso zaila zuena– herrialde aurrerakoien politika ekonomikoan, estraktibismoan, oinarritu izana izan zen. Mende hasieran kapitalismo globalak ekonomia eskualdeka banatu zuen. Triangulu horretan, pobretutako munduari, Latinoameri-



Lerro hauen gainean, Gustavo Petro Kolonbiako presidentearen agerraldia. Aurreko orrialdean, Lula, garaipenera eramango zuen hauteskunde kanpainako ekitaldi batean, Sao Paulon.
Leo CORREA | AFP

kari tartean, lehengaiak eskaintzea zen plana.

Hasieran hazkunde ekonomiko orokorrak lehengaien prezioak igo zituen eta ekonomia estraktibistak tranpan erori ziren, handik urte batzuetara, errezesioaren haritik, prezioek behera egin zutelako.

Gainera, estraktibismo horrek sekulako eraginak izan zituen, eta ez bakarrik ingurumenean. Gobernu batzuek, Ekuadorrekoak kasu, modernitatearen kontzeptu hegemonista bat inposatu zieten, edo saiatu ziren, herri indigenei eta nekazari txiroei, eta horrek komunitateak huster

behartu eta bertako ekonomia txikiak desitxuratu zituen.

Giro horretan hazkunde ekonomiko orokorra eten egin zen eta 2013an protestak nagusitu ziren Latinoamerikako kaleetan, kasu batzuetan errepresioa jasan zutenak. Hor hasi zen marearen beherakada.

ERRONKA HANDIAK

Bera ordezkatu zuen «bosturteko beltza», ordea, arazo bat bera ere konpondu ez eta egoera gaiztotzea lortu duen amesgaiztoa baino ez da izan, motzagoa baina luzeegia.

Uruguain ezik –2020an eskuinak lortu zuen gobernua–,

gainerako herrialde gehienetan ezkerre gailendu da.

Egun Latinoamerikako sei ekonomia indartsuenak ezkerreko gobernuen eskuetan daude (Brasil, Mexiko, Argentina, Txile, Kolonbia eta Peru). Baina aurrean dituzten erronkak ez dira makalak.

Hasteko, klase herrikoien bizia baldintzak berehala hobetu behar dituzte, Brasilgo hauteskundeetan ikusi den bezala ultraeskuinaren mamua hor dagoelako eta, kasu honekin jarraituz, Lularen garaipena “stablishment”-arenarekin nahastu egin delako.

Horrez gain, estraktibismo hutsari uko egiten hasi behar dute, ekonomia anitzagoa sortzen saiatuz, lehengaien prezioen mende ez egoteko. Are gehiago dagoeneko begi bistan delako kapitalismo globalaren mantra, hots, mundu merkatuan sartuz gero herrialde guztiek, esportatzaile hutsak tartean, garatzeko aukera izango zutela, gezur are hutsagoa dela.

Eta horrekin guztiarekin zerikusia duen azken erronka politiko bati eutsi beharko diote: norabidea. Zein izango da Latinoamerikako ezkerrearen erdua? Txilen Gabriel Borricek edo Kolonbian Petrok ezarri nahi dutena? Feminismoaren eta ekologismoaren borrokatan oinarritzen dena?

Ez dirudi, Chavez zendu zenetik hamar urte beteko diren 2023an, eta bere ekonomia jota dagoela ikusita, Nicolas Maduroren Venezuela agintaritzak mantentzeko gai izango denik. Are gutxiago soilik geopolitikan oinarritzen den Ortegaren Nikaragua. Kubak ere nahikoa du berearekin.

Erronka handiak baina itxaropentsuak. Garaipenetik soilik egin ahal zaielako aurre.

2021. urtean Txilen, Perun eta Hondurasen, eta aurretik Argentinan eta Bolivian sumatu zen bigarren «olatu gorria» baieztatu du ezkerre aurten Kolonbian eta Brasilen irabazi ondoren

Lehen hamarkada progresista zapuztu zuen «bosturteko beltzak» arazorik konpondu ez eta egoera gaiztotu egin du. Eskerrak motzagoa izan dela (bertakoentzat luzeegia hala ere)